GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA ETA GOI MAILAKO ARTE IKASKETETAN SARTZEKO HELDUTASUN PROBA

ZATI KOMUNA

2020KO DEIALDIA

26/2020 EBAZPENA, otsailaren 25 koa

23/05/2020 **EUSKAL HIZKUNTZA**

EPAI MAHAIA ZBKº: **KALIFIKAZIOA**

DEITURAK: .....

IZENA: .....

NANa/AIZ: .....

Teoria badakigu baina…

15 urte bete nituen udan Landetara joan ginen familian. Osaba-izeba batzuk, osaba horren arreba eta gure etxekoak. Opor horietan elkarrizketa bat izan genuen nire ahizpak, osabaren arrebak eta nik. Dieta kontuak, argaldu behar genuela, hemen eta han genuela kendu beharreko 'txitxia'… Osabaren arrebak nik baino urte batzuk gehiago zituen eta elkarrizketa oso ondo gogoratzen ez badut ere esan zidan gauza bat ez zait inoiz ahaztu. Nire aldaka eta izterrak lodiak nituela eta horiek gutxitzea gustatuko zitzaidala esan nuen nik eta beraren erantzuna zera izan zen, asko argalduta ere ez nuela inoiz lortuko gerrialdea estu izatea, nire gorputza horrelakoa zelako.

Ez zebilen ondo. Esan zuena entzutea niretzako ur hotzezko balde bat bezala izan zen. Ez nuen nire gorputza gogoko… eta inoiz aldatuko ez nuela?

Bere intentzioa ez dut uste txarra zenik. Nintzen bezala maitatu behar nuela nire gorputza izan zitekeen mezua. Horra arte ondo, teoria erreza da. Maitatu dezagun gure burua eta ez dugu arazorik izango… baina praktikan? Nola eraman hau aurrera? Nork erakutsiko digu? Eta guk nola erakutsiko diegu gure ondorengoei? Meditazioa, yoga, autoestimu tailerrak, emozioen kudeaketa… gaur egun oso modan dauden gaiak dira. Bizitzan aurrera egiteko ezinbestekoak direnak. Auto-onarpena, maitasuna, emozioen kudeaketa sanoa… Hor ere teoria asko… baina praktikara eramatean zer? Gai horietan 'aditua' denak, hori zabaldu eta erakutsi nahi duenak (izan guraso, terapia egile, irakasle…) bere emozioak kudeatzeko arazoak baditu, enpatiarik ez badu, nola jasoko dugu guk ikasgaia? Zertan gabiltza?

Nik adibidez, urte asko pasatu ditut nire buruaren kontra borrokan. Osabaren arrebak esan zidana egia ez zela nire hezurretan ondo grabatuta utzi dut. Nire auto-maitasun eza jateari utziz tapatu nahiko banu bezala, burua eta gorputza zigortzen. Kostata baina egoerari buelta eman diot eta naizena onartzen, errespetatzen eta maitatzen ikasi dut. Baina oraindik gabezia asko eta asko ditudala konturatzen naiz. Gabezia hauek urteen poderioz gutxiagotzen joango diren esperantza ere badut. Nire gabezia eta bertute guzti horiek hartuta gure bi alabak hezteko bidean murgilduta nabil. Eta berriro ere teoria oso ondo dakidala konturatzen naiz…baina praktikan? Ondo ari ote naiz? Benetan transmititu nahiko nizkiekeen baloreak jasotzen ari ote dira? Hau oinarri izanda eta ordu asko etxetik kanpo pasatzen dituztela jakinda, eskolan egiten duten lanketa baliagarri ote zaie, irakasleak ez badu lanketa hori

aurrera eramateko nahiko baliabide? Eskolaz kanpoko ekintzetan eskaintzen al zaie duten balioa sentipen eta emozioei?

Ez da erraza, baina bide onean gaudela iruditzen zait. Hala ere egin dezagun 'propaganda' gutxiago. Teoria badakigu. Has gaitezen behingoz praktika hori hobetzen. Hitzetik ekintzetara jo dezagun. Eredu bagara, seriotasunez landu dezagun eredu izan behar duen hori. Aurrena etxea garbitu eta ondoren, soilik ondoren, besteen etxeetara begira jartzeko eskubidea izan dezakegu. Eta begira jartzean, aurretik etxeko lanak ondo egin baditugu ez da izango kritika egiteko, besten etxean gurea bezain garbi izaten laguntzeko baizik.

1.- GAIA (p 1)
2.- EGITURA (eskematikoki) ((2p)
3.- TESTU MOTA. Justifikazioa (2p)
4.- LABURPENA (2p)
5.- BALORAZIO KRITIKOA (2p)
6.- ZUZENTASUNA ETA ORTOGRAFIA (P1)

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA ETA GOI MAILAKO ARTE IKASKETETAN SARTZEKO HELDUTASUN PROBA

ZATI KOMUNA

2020KO DEIALDIA

26/2020 EBAZPENA, otsailaren 25 koa

23/05/2020 **EUSKAL HIZKUNTZA**

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA ETA GOI MAILAKO ARTE IKASKETETAN SARTZEKO HELDUTASUN PROBA

ZATI KOMUNA

2020KO DEIALDIA

26/2020 EBAZPENA, otsailaren 25 koa

23/05/2020 **EUSKAL HIZKUNTZA**